



**Gurasoen Ebaluazioa:  
hasiera eta bukaerako  
galdekizunen alderaketa  
(2009-2010)**

**GALTZAGORRI ELKARTEA**  
2011ko abendua

---

1. Sarrera	
1.1. Bukaerako ebaluazioaren helburuak .....	1
1.2. Metodologia.....	2
1.3. Galdekizunen banaketa.....	3
2. Gurasoen emaitzak	
2.1. Irakurketarekiko jarrerak .....	4
2.1.1. Irakurtzearen zergatiak .....	4
2.2. Kontakizunaren jarduera haurrekin .....	5
2.2.1. Haur kanta abestu .....	5
2.2.2. Ipuinak kontatu (maiztasuna) .....	6
2.2.3. Ipuinak noiz kontatu .....	7
2.2.4. Nork kontatzen du .....	8
2.3. Narraziorako baldintzak .....	10
2.3.1. Ipuina kontatzeko estrategiak .....	10
2.3.2. Kontatzeko baldintzak .....	11
2.3.3. Haurraren arreta (denbora) .....	13
2.4. Haur Literaturako baliabideen ezagutza maila .....	14
2.4.1. Haur Literaturarekiko ezagutza maila orokorra.....	14
2.4.2. Haur Literaturako baliabideen erosketa.....	15
2.4.3. Haur Literaturako baliabideen zein adinetarako diren informazioa ...	16
2.4.4. Haur Literaturako informazioa bideen erabilera .....	17
2.4.5. Haur Literaturako informazio bide zehatzak .....	18
2.5. Liburutegiaren erabilpena.....	20
2.5.1. Liburutegietara joatearen maiztasuna.....	20
2.5.2. Maileguaren erabilpena eta baliabideen mota .....	21
2.6. Bularretik Mintzorako materialen balorazioa.....	23
3. Bularretik Mintzora egitasmoaren garapena zenbakitan .....	24
4. Ondorioak .....	26

## 1. SARRERA

---

Txosten honetan *Bularretik Mintzora* egitasmoaren gurasoen bukaerako galdekizunen emaitzak aurkezten dira. Ebaluazioa, 2009-2010 ikasturtetik 2010-2011 ikasturtetara, egitasmoan parte hartu duten 5 urteko haurren gurasoei egin zaie. Ekimen hau 2011ko azkeneko hiruhilekoan egin da.

### 1.1. BUKAERAKO EBALUAZIOAREN HELBURUAK

---

Bukaerako ebaluazioak bi helburu ditu:

1. *Bularretik Mintzora* egitasmoaren ekimenen eragina kuantitatibo eta kualitatibo aztertu da: egitasmoa abian jarri zenetik zer nolako aldaketak eman diren, gurasoen iritziz, haurren irakurketa ohituretan, hiru esparruetan, hau da, eskolan, etxean eta liburutegian.
2. Bigarren helburua *Bularretik Mintzora* egitasmoak sortu dituen Haur Literaturako materialak eta formazio ekimenak baloratzea da.

Haur Literaturako materialari dagokionez, gurasoek hauek baloratu dituzte: gomendatutako liburu-ipuinak, CD-ak, foiletoak, esku orriak, ...

Egitasmoak eskaini dituen formazio jarduerak ere baloratzen dira bukaerako galdekizunean: ikastaroak, hitzaldiak, irakurketa klubak, ...

Hasierako ebaluaketaren emaitzekin konparaketa kuantitatiboa egiten da. Horrela, arloz arlo, lortu diren aldaketak aztertzen dira, zenbait datu eta ondorio lortuz egitasmoaren eragina eta eraginkortasuna neurtzeko.

## 1.2. METODOLOGIA

---

Bukaerako ebaluazioaren helburuak neurtzeko, galdekizun bat sortu da. Baloratuak izan diren aldagaiak hauek izan dira:

### **Irakurketarekiko jarrerak:**

1. Irakurketaren zergatiak

### **Kontakizunaren jarduera haurrekin**

2. Haur kantak abestea
3. Ipuinak kontatzearen maiztasuna
4. Ipuinak kontatzearen unea
5. Ipuinak nork kontatzen du

### **Narrazioarako baldintzak**

6. Kontatzeko estrategiak
7. Kontatzeko inguruko baldintzak
8. Arretaren iraupena

### **Haur Literaturako baliabideen ezagutza maila**

9. Baliabideen erosketa
10. Adinari egokitasun maila
11. Informazio bideen erabilera

### **Liburutegiaren erabilpena**

12. Maiztasuna
13. Maileguen erabilpena

Guztira, gurasoen bukaerako galdekizunak mota ezberdinetako **19 galdera** ditu.

Galdekizunak *Bularretik Mintzora* egitasmoan parte hartzen duten eskoletara eraman dira. Eskola bakoitzean, 5 urteko haurren guraso guztiei banatu zaizkie, instrukzio orriarekin batera. Epe bat eman ondoren jaso, datuak bildu, eta estatistikoki tratatuak izan dira. Txosten honetan prozesu horren emaitzak eta ondorioak azaltzen dira.

### 1.3. GALDEKIZUNEN BANAKETA

Ondorengo taulan zehazten dira bukaerako ebaluazioan parte hartu duten herriak, eskolak eta guraso kopuruak.

Herriak	Eskolak	Gurasoak	
		Bidalitako galdekizunak	Jasotako galdekizunak
Amurrio	4	71	33
Ermua	4	70	52
Iurreta	2	30	16
Oñati	4	114	52
Tolosa	4	232	91
Markina	2	50	19
<b>Baturak</b>	<b>22</b>	<b>567</b>	<b>263 (%46)</b>

1.Taula: Herriak, eskolak eta, gurasoei banatu eta jasotako galdekizunen kopurua

Ebaluazioa 6 herritan egin da. Ebaluaketan parte hartu duten ikastetxeak 22 izan dira. Horietan galdekizunak banatu eta jaso dira.


Gurasoen erantzuna ontzat har daiteke ia erdiak bete baitu galdekizuna (%46a hain zuzen ere). Emaitza honek, guraso askorengan irakurzaletasunarekiko interesa dagoela azaltzen du. Beraz, txosten honetan aurkezten diren emaitzak **263 gurasoen** erantzunenetan oinarrituak daude.

## **2. GURASOEN EMAITZAK**

---

## 2.1. IRAKURKETAREKIKO JARRERAK

### 2.1.1. IRAKURTZEAREN ZERGATIAK



1. Grafika: Irakurtzearen zergatiak (%)

Ipuinak kontatzearen, poesia errezitatzearen, sehaska kanta kantatzearen, eta oro har, haurrari “irakurtzen ematearen” zergatiez galdetzerakoan, gurasoek bukaerako galdekizunean ere zergati bat baino gehiago ematen dituzte. Hala ere, arrazoi bat besteen aurretik azaltzen jarraitzen du: “ongi pasatzeko” (% 65a). Hasierakoarekin konparatuz % 14a gutxiago.

Aukeran eskaintzen zitzairen beste aukerak ere, ehuneko gutxiagoarekin azaltzen dira; “distrainzeko” (- %12); “gauzak irakasteko” (- %17); jolasteko (- %15). Hasierako emaitzekin konparatuz, hobeagotu den arrazoi bakarra, “irakurtzen ikastea” da, (% 24a erantzuten du; + %4a hain zuzen ere).

### Ondorioak:

Hasierako emaitzekin konparatuz, orokorrean, irakurketaren zergatiari garrantzia gutxiago ematen dizkiete gurasoek, arrazoi batengatik bereziki. Bukaerako galdekizunean, hasierakoan ez bezala, beste aukera bat eskaintzen zitzaien; “*Besterik*” hain zuzen ere. Aukera honetan, sartzen ziren “*komunikazioa indartzeko*” eta “*erlaxatzeko*” bezalako zergatiak. Aukera hau (“*Besterik*”), **%45a** aukeratu du, bigarren zergatian bihurtuz.


Horregatik esan daiteke, aldagai honetan, aldaketa baikorra nabarmentzen dela: orain gurasoek bere haurrarekin irakurtzen ari direnean, plazerarekin, komunikazioarekin eta lasaitasunarekin gehiago lotzen dutela irakurketa bera, eta hasierako ebaluaketarekin konparatuz, garrantzi gutxiago ematen dietela, irakurketaren beste helburuei; “*distraitzeko*” “*gauzak ikasteko*” eta “*jolasteko*” bereziki.

Emaitza horiek adierazten dute *Bularretik Mintzora*ko helburuetariko bat lortu dela neurri handi batean; haurren irakurketa plazerarekin, komunikazioarekin eta afektibitatearekin lotzea, hain zuzen ere.

## 2.2. KONTAKIZUNAREN JARDUERA HAURRAREKIN

Atal honetan, bukaerako galdekizunean gurasoei galdetu zaie haurrarekin edozein eredu literario burutzearen zenbait alderdiez: haur kantak abestu, ipuinak kontatu, poesia errezitatu...

### 2.2.1. HAUR KANTAK ABESTU



2. Grafika: Haur kantak abestu (%)

Aldagai honetan aldaketa oso nabaria gertatu da. Bukaerako galdekizuna erantzun duten gurasoek, **%67ak**, haurrei haur kantak abesten dietela erantzuten dute. Beraz, hasierakoarekin konparatuz, **%34tan hobeagotu** da.




Beraz, ohitura hau praktikan jartzen duten guraso kopurua bikoiztu egin da. Dena dela, esan beharrean dago, hasierako galdekizunean, “haur kanten” ordeztu, ea “sehaska kantak” abesten zizkieten galdetzen zitzaiela gurasoei. Normalean, sehaska kantak, adin txikiko haurren gurasoek kantatzen dizkiete. Haur kantak, aldiz, haur literaturako ekintza orokorragoa denez, 5 urteko haurrei abesteko ere, egokiak dira. Hau izan daiteke, aldaketa honen beste arrazoiak.

### Ondorioak:

Aldaketak aldaketa, aldagai honetan ere, hobekuntza nabaria gertatu da. Dirudienez, *Bularretik Mintzora* egitasmoak sortu dituen baliabideak (CDak kantuekin, abestiekin, poesiekin, ...) pixkanaka gurasoengana eta hurrengan iristen ari dira, eta euren ohituretan eragin baikorra sortuz. Horrez gainera, gurasoen formazioan, behin eta berriz azpimarratzen da kantuen eta ahozkotatasunaren garrantzia, eta badirudi, aholku horiek ere, eragina izan dutela.

### 2.2.2. IPUINAK KONTATU (MAIZTASUNA)



3. Grafika: Ipuinak kontatzearen maiztasuna (%)


Haurrei ipuinak kontatzeko maiztasunaz galdetzerakoan, hasierako ebaluazioaren bezala, guraso gehienek (% 70,00ak) “sarritan” edo “egunero” kontatzen dizkiete. Batzuetan kontatzen dizkietenak, %28a da. Beraz, orain, +%4a gehiago. “Sarritan” kontatzen dutenak, gehienak dira, (%46ak), ia erdia. Hemen ere, hasierakoarekin konparatuz, +%6a.

Zorionez, orain ere, ez dago haurrei ipuinik kontatzen ez dizkieten gurasorik. Hasierako ebaluazioan %4 ziren. Aldiz, “egunero” kontatzen dituztenak, bukaerako ebaluazioan %24a da, (- %12a).

### Ondoriak:

Ipuinak kontatzearen maiztasunari dagokionez, esan daiteke, orokorrean ez dela aldaketa nabarmenik azaldu hasierako ebaluaketarekin konparatuz. Dena dela, “muturreko” maiztasunak (“inoiz ez” / ”egunero”) gutxitu egin dira. Aldiz, erdikoak (“batzuetan” / “sarritan”), ugartu. Zentzu batean, emaitza baikorra da, ipuina kontatzearen maiztasun altuena, “sarritan” delako (%46a). Beste aldetik, aurrerago ikusiko dugun bezala, orain ipuina kontatzeak, gurasoek beste baldintzekin elkartzen dituzte, kontakizunaren baldintzekin hain zuzen ere (isiltasuna egotea, erabateko arreta izatea, erlaxatuta / motibaturik egotea), hau da, ipuina kontatzearen kalitatearekin.

### 2.2.3. IPUINAK NOIZ KONTATU



4. Grafika: Kontakizunaren unea (%)

Ipuina noiz kontatzen duten aztertzerakoan, bukaerako ebaluazioan ere guraso askok erantzun bat baino gehiago aukeratu dituzte. Hasierakoan bezala, momentu aukeratuena “lo hartu aurretik” da (% 63a), baina aurrekoarekin konparatuz, %5 gutxiago.


Aukeran jartzen zitzaizkien artean, beste bi unetan, nahiz eta ehuneko txikitik, emaitzak jaitsi egin dira ere; “jolastean”, %16a, (- %2) eta “jaten, janztean, bainatzen”, %5a (- %3). Baina eman den aldaketarik nabarmena honako hau da: “edozein momentutan” ipuina kontatzen diotenak, %35a da, hasierako emaitzekin konparatuz, %10 gehiago.

## Ondorioak:

Ipuina kontatzearen unearen emaitzak, bukaerako ebaluaketan hobeak dira irakurtzeko zaletasunaren sustapenari dagokionez. Nahiz eta orokorrean, ipuinaren kontaketa unea etxeko esparruarekin, eta batez ere lokartzeko unearekin lotua jarraitzen duen, gero eta guraso gehiago daude haurren egunerokotasunean haur literaturari presentzia gehiago ematen diotenak, ipuinaren unea ez baitute lotara joateko garaira bakarrik mugatzen, “edozein momentura” baizik. Aldaketa hau, haur literaturari berezko garrantzia eta entitatea ematen dio, guraso gehiago baitaude kontakizuna haurren ekintzekin “lagungarri” edo “osagarri” gisa erabiltzen ez dutenak.

*Bularretik Mintzora* egitasmoaren formazio ekintzetan helburu hau azpimarratzen da, eta badirudi, pixkanaka, jarrera hau gurasoengan hedatzen ari da.

### 2.2.4. NORK KONTATZEN DUEN



5. Grafika: Ipuina nork kontatzen du (%)

Ipuinak nork kontatzen dituen galdetzerakoan, bukaerako ebaluaketan ere, guraso askok pertsona bat baino gehiago aukeratu dute. Emaitzek diotenez, gehiengo batean, ama dela erantzun dute; ipuina kontatzen den bakoitzean, **% 89,00an**, amak kontatzen du. Hasierako emaitzekin konparatuz igoera txiki bat izan da (+ %2). Aitak kontatzen duen kasuan erantzunen **% 46,00a** da. Hasierako emaitzekin, **% 2 gutxiago**.

“Aiton/amonaren” partehartzearen emaitzak ia berdintsuak dira hasierakoekin konparatuz.

Aldiz, “besteak” aukera, **%5a gehiago** lortu du orain. Aukera honetan, osaba-izeba, zaintzaileak, anai-arreba nagusiek, ... biltzen zituen.

### **Ondorioak:**


Aldagai honetan ez dira aldaketa nabarmenik azaldu, hasierako ebaluaketarekin konparatuz. Orokorrean, bukaerako ebaluazioaren arabera, ipuina kontatzeak emakumearen eskuetan jarraitzen du.

Ohitura hau aldatzeko, hau da, haur literaturan gizonaren parte hartzea ugaritzeko, *Bularretik Mintzora* bezalako irakurzaletasuna sustatzeko egitasmoak bakarrik ez dira nahikoak. Ezinbestekoa da, hezkidetzak lantzen dituzten egitasmo hezitzaile orokorren laguntza. Haurra hezterakoan, haurrarekin komunikatzerakoan, maitasuna adierazterakoan, zaintzerakoan, jolasterakoan, haurrari ipuina kontatzerakoan... gizonek gizartean azaltzen duten jarrerak eta ohiturak hezkidetzarantz aldatzea beharrezkoa da.

## 2.3. NARRAZIORAKO BALDINTZAK

Atal honetan bukaerako galdekizunean gurasoei galdetu zaie zein neurritan aldatu diren narrazioarako jarduerak burutzerakoan erabiltzen dituzten jarrerak eta estrategiak.

### 2.3.1. IPUINA KONTATZEKO ESTRATEGIAK



6. Grafika: Ipuina kontatzeko estrategiak (%)

Orokorrean, bukaerako ebaluazioan ere, gurasoek ipuina kontatzerakoan estrategia bat baino gehiago erabiltzen dituztela diote. Hasierakoarekin konparatuz, bakoitzaren ehunekoen aldeak parekatuagoak azaltzen dira. Aldaketa nabarmenena honako hau da: hasierakoan, gehien erabiltzen zuten estrategia “irudiak erakustea eta komentatzea” bazen, bukaerakoan, **%45ak** erabiltzen dute estrategia hau. Beraz, **%19 gutxiagok**.

Aldiz, orain, beste bi estrategia motek gorantz egin dute, modu esanguratsuan. Alde batetik, “testua irakurtzen” dutenak, bukaerako ebaluaketan, **%46a** da, **(+ %9)**. Bestetik, “besteak” erabiltzen dutenak (ipuina asmatu, galderak egin, era laburrean kontatu), **%27a** da **(+ %18)**.

Azkenik, beste bi estrategia motek, ez dute aldaketa nabarmenik izan; “ahoz kontatu libururik erabili gabe”, **%14ak** erabiltzen du **(- %2)** eta “keinuak erabili kontatzerakoan”, **%39ak**, **(+ %2)**.


### Ondorioak:

Ipuina kontatzeko estrategiei dagokionez, bukaerako ebaluaketaren emaitzen arabera, aldaketa baikor batzuk eman dira. Orain guraso gehiago daude estrategia bat baino gehiago erabiltzen dituztenak: gehiago daude, ipuina *irakurtzen* dutenak; gehiago daude baita, beste estrategiak erabiltzen dituztenak eta ipuinaren irudia erakustera edo komentatzera mugatzen ez direnak bakarrik. Azken aldaketa honek esan nahi du estrategia edo kontatzeko baliabide gehiago lortu dituztela, guraso formazioaren ekintzekin, besteak beste.

Beste aldetik, badago oraindik gutxi erabiltzen jarraitzen den estrategia bat: “Ahoz kontatzea, libururik gabe”. Zorritzarez, estrategia hau gutxi du. Egungo gurasoak ez daude ohituta ahozkotasuna erabiltzen inongo euskarririk gabe ipuina kontatzerakoan, seguru asko eurek ere “irudian” hezi egin direlako.

Dena dela, irakurzaletasuna sustatzerakoan, helburu honekin jarraitzea behar-beharrezkoa da, hau da, ahozko transmisioaren garrantzia azpimarratuz eta hitzaren indarra aldarrikatuz. Bizi dugun irudiaren gizarte teknologiko honetan, emaitzak epe luzeagoan lortuko direla konbentzituak gaude.

### 2.3.2. KONTATZEKO BALDITZAK



7. Grafika: Kontakizunean inguruko baldintzen kontrola (%)

Kontakizunaren unean, inguruko baldintzak zaintzen edo kontrolatzen dituzten galdetzerakoan, bukaerako ebaluazioa bete duten gurasoek, orokorrean baietz erantzuten dute, eta hasierakoarekin konparatuz, nabarmenki guraso gehiagok gainera.

Gehien zaintzen jarraitzen duten baldintza, “haurraren arreta erabatekoa izatea” da. Oraingoan, ia guraso guztiek erantzuten dute baietz (%**94ak**). Hasierakoarekin konparatuz, **%10 gehiago**.

Beste bi baldintzetan ere alde nabarmenenak eman dira. Kontakizunean, “isiltasuna egotea”, orain zaintzen duten gurasoek **%86a** da; hasierakoekin konparatuz, **%19 gehiago**.

Baina gehien hobetu den baldintza, hirugarrena da; orain, kontakizunean “norbera erlaxatua eta motibatua egotea” zaintzen dutenak **%73a** da; hasierakoarekin konparatuz, **%25 gehiago**. Beraz, hobekuntza nabariena hemen dago.


### **Ondorioak:**

Bukaerako ebaluaketaren emaitzak, kontatzeko baldintzei dagokionez, hobekuntza nabaria izan da. Orain, gurasoek gehiago zaintzen dituzte kontakizunaren inguruko baldintzak; hau da, zein egoeratan kontatu. Gainera, norberaren egoera psikoafektiboa, (erlaxaturik eta motibatutik egotea) gehiago kontutan izan dute. Beraz, orain garrantzia gehiago eskaintzen diote kontakizunaren momentuari; haurraren arretari, isiltasunari, ...

Datu horiek adierazten dute, gurasoek kontakizunaren kalitatea gehiago zaintzen ari direla, momentu garrantzizkoa dela uste dutelako, ongi kontatu nahi dutelako...

*Bularretik Mintzorako* formazio ekimenek eta zentzu honetan, eskaini diren hainbat gomendiok (ikastaroetan, hitzaldietan, foiletuetan, ...) eragina izan dutela ondorioztatu daiteke.

### 2.3.3. HAURRAREN ARRETA (DENBORA)



8. Grafika: Haurrak arretari eusten dion denbora (%)

Jarduera literario batean, haurrak arretaz zenbat denbora egoten diren galdetzerakoan, bukaerako ebaluaketan, guraso gehienek “10 minutu baino gehiago” egoten direla erantzuten dute (%59ak hain zuzen ere). Hasierako galdekizunarekin konparatuz, %48 **gehiago**. Ikusten denez, alde handia dago. “5-10 minutu” irauten dutenak ere, gehiago dira (%31ak), %17 gehiago. Denbora tarte txikiagoetan aldiz (“3 minutu baino gutxiago” eta “3-5 minutu”), emaitzek beherantz egin dute.

#### Ondorioak:

Aldagai honi dagokionez ere, aldaketa nabariak gertatu dira bukaerako ebaluaketan. Hala ere, zenbait alderdi azpimarratu behar dira aldaketa horiek ulertzerakoan. Lehenik, hasierako ebaluaketan, aukeran jartzen ziren erantzunen artean, beste bat eskaintzen zen; “ipuinen arabera”, hain zuzen ere. Hau, aukeratuena izan zen (%60a), beste denbora tarteetan emaitzak baldintzatuz. Horregatik, aukera hori, baztertu egin zen bukaerako galdekizunean.

Beste aldetik, kontutan izan behar da hasierako ebaluazioan galdekizuna erantzun zuten gurasoen %45a zela 5 urte zituzten haurea. Bukaerakoan aldiz, haur guztiek 5 urte dituzte. Alderdi honek ere, emaitzak baldintzatzen ditu. Normala denez, zenbat eta adin gehiago izan, orduan eta arreta mantentzeko ahalmen gehiago izango du haurrak. Hau da, garapen psikoebolutiboak berak, hobetzen ditu haurren arretari eusteko ahalmenaren emaitzak.


Dena dela, irakasleekin landutako *Bularretik Mintzora* egitasmoaren barruan, eskolaren esparruan haur literaturarekiko proposatu diren ekimen sistematikoak, haurrengan ohitura batzuk sortu dituzte, arreta mantentzerakoan ere eragin onuragarriak ekarriz.



## 2.4. HAUR LITERATURAKO BALIABIDEEN EZAGUTZA MAILA

Irakurzaletasuna suspertzeko beste aldagaia *Haur Literaturako baliabideen ezagutza maila* da. Arlo honetako alderdi batzuetaz galdetu zaie gurasoei.

### 2.4.1. HAUR LITERATURAREKIKO EZAGUTZAREN ALDAKETA BILARRETIK MINTZORA EGITASMOAREN ESKER



9. Grafika: Haur Literaturarekiko ezagutzaren aldaketa BM egitasmoaren esker (%)

Bukaerako ebaluazioan, gurasoei galdetu zitzaizkien *Bularretik Mintzora* egitasmoaren ekintzei esker zein neurritan areagotu den beraien ezagutza Haur Literatura buruzko arlo desberdinetan. Emaitzak adierazten duten bezala, arlo guztietan ezagutza hobea da. Arloz-arloko aldaketa mailak honakoak dira:

Gurasoek diotenez, gehien hobea da arloa ezagutzari dagokionez, **“haur literaturako baliabideen ezagutza”** da. Zehazki, gurasoen %52ak “nahiko” hobea da eta %15, “asko”. Ondoren, **“komunikazio afektiboa indartzea seme-alabekin”** hobea da, %53ak “nahiko” diote eta %4ak, “asko”.

Beste hiru arloetan, ezagutza maila neurri txikiagoan aldatu dela erantzuten dute. Arlo horiek honakoak dira: “ipuin bat kontatzen ikastea”, “haurraren ahozko garapenari buruzko aholkuak eskuratzea” eta “haurra txikitatik estimulatzekeo estrategiak eskuratzea”. Emaitzen arabera, arlo horietan guraso gehiago daude ezagutza maila “gutxi” edo “oso gutxi” areagotu dela diotenak, “nahiko” edo “asko” erantzuten dutenak baino.


#### Ondorioak:

Emaitza hauek egitasmoaren eragin baikorra adierazten dute. *Bularretik Mintzora*ren helburuetariko bat, guraso eta haurrengan haur literaturako baliabideak ezagutaraztea da: horretarako egitasmoak sortutako materialak, CDak, bibliografiak, ... helburuak betetzen ari da.

Beste aldetik, egitasmoaren formazio ekintzek eta egindako gomendioek, azpimarratzen dute guraso eta haurren artean komunikazio afektiboa sendotzea dela irakurzaletasuna sustatzearen helburu garrantzitsuenetako bat. Erantzunak aztertu ondoren, mezu hau gurasoengana iristen ari dela ondorioztatu daiteke.

Hobetu edo indartu behar diren arloak aldiz, ahozkoasuna lantzeko eta garatzeko aholkuak eta estrategiak dira.

#### 2.4.2. HL BALIABIDEEN EROSKETA



10. Grafika: HL-ko baliabideen erosketaren maiztasuna (%)


Bukaerako ebaluazioan galdetu zaie gurasoei zer maiztasunarekin erosten dituzten Haur Literaturako baliabideak. Hasierako emaitzekin konparatuz, nahiz eta oso nabarmenak ez izan, aldaketa batzuk azaltzen dira. Orain “sarri” erosten dituztenak, %18a da, (%14 gutxiago). “Batzuetan” erosten dituztenak, orain %69a da, (%9 gehiago) eta “gutxietan” erosten dituztenak, %11a. Hasierako emaitzekin konparatuz, %5 gehiago ere. “Inoiz” erosten ez dituztenak, ehuneko berberarekin azaltzen da orain (, %2a bakarrik).

### Ondorioak:

Haur Literaturako baliabideen erosketari dagokionez, bukaerako emaitzak diotenez, hasierakoekin konparatuz, orokorrean, maiztasuna beherantz egin du. Orain guraso gehiago daude maiztasun gutxiagoarekin erosten dituztenak. Joera honen arrazoiak bi izan daitezke:

1. Alde batetik, *Bularretik Mintzora* egitasmoak, liburutegiak duen garrantzia azpimarratzen du irakurzaletasuna sustatzerakoan. Horregatik, eskola, familia era liburutegia lankidetzen jarri ditu helburu honetan. Aurrerago ikusiko dugun bezala, guraso eta haurrak, orain, modu esanguratsuan, gehiago hurbiltzen ari dira liburutegietara, haur literaturako baliabideen mailegua ugarituz: hau da, orain gehiago mailegatu dela eta gutxiago erosten dela.
2. Beste aldetik, azken bi urteetan gure gizartea pairatzen ari den krisi ekonomikoak kontsumoaren adierazle guztietan beherakada eragin du, produktu kulturaletan eta haur literaturako baliabideetan nabarmenduz.

### 2.4.3. HL BALIABIDEAK ZEIN ADINETARAKO DIREN INFORMAZIOA



11. Grafika: HL baliabideak zein adinetako diren informazio maila (%)


Haur Literaturako baliabideak zein adinetarako diren egokiak galdetzerakoan, bukaerako ebaluazioaren emaitzak, orokorrean, hasierakoekin konparatuz nabarmenki hobetu dira baita.. Orain, informaziorik ez duten gurasorik, %1a dira bakarrik ( - %6). Informazio “gutxi” dutenak, %22a dira ( - %26). Aldiz, informazio “nahikoa” dutenak, %68a dira. Hasierako ebaluazioaren emaitzarekin konparatuz, %27a **gehiago**. Azkenik informazio “asko” dutenak, %7a, da ( + %3).

### Ondoriak:

Bukaerako emaitzak adierazten duten bezala, *Bularretik Mintzora* egitasmoaren helburuetariko bat, *Haur Literaturarekiko informazio maila ugartzea gurasoengan*, betetzen ari da.

Egitasmoaren baitan banatzen diren bibliografia gomendioak, foileto eta beste informazioak gurasoengana iritsi direla ondorioztatu daiteke, orain gurasoek, baliabideen adinarekiko egokitasunaz informazio gehiago dutela erantzun baitute.

#### 2.4.4. HAUR LITERATURAKO INFORMAZIO BIDEEN ERABILERA




12. Grafika: Haur Literaturako informazio bideen erabilera (%)

Haur Literaturari buruzko baliabideei buruzko informazioa eskuratzeko, bideen erabileraren maiztasuna galdetzerakoan, orain, orokorrean, gurasoek maiztasun gehiagoarekin erabiltzen dituztela diote. Bukaerako ebaluazioan, “bat ere ez” dutenak erabiltzen, %8a da bakarrik. Hasierako emaitzarekin konparatuz, %18a gutxiago da; beraz, hobekuntza nabaria. Informazio “gutxi” duten ehunekoa, ia ez da aldatu (orain, + %3a bakarrik). Informazio “nahikoa” dutenak, bukaerako ebaluazioan, %36a da, (+ %13a gehiago). Azkenik, informazio “asko” dutenak, ehuneko berdinarekin azaltzen da ere (%2a).

### Ondorioak:

Aurreko aldagaiaren hobekuntzarekin gertatu den bezala, informazio bideei dagokionez, *Bularretik Mintzora* egitasmoaren ekintzei eta baliabideei esker: eskoletan eta liburutegietan banatu diren hainbat informazio, baliabide, gomendio, bibliografia... guraso gehiago dago orain, haur literaturari buruzko informazioa eskuratzekoan, bidea espezifikoak erabiltzen dituztenak. Emaitza horiek adierazten dute gainera, orain gurasoengan haur literaturarekiko interesa eta jakin-min gehiago dagoela, eta, azken finean, gurasoek haurren irakurzaletasuna sustatzekoan, bitartekari egokiak bihurtzeko behar duten baldintzetako bat, informatuak egotea alegia, egitasmoaren esker, lortzen ari dela.

### 2.4.5. HAUR LITERATURAKO INFORMAZIO BIDE ZEHATZAK



13 Grafika: Haur Literaturako informazio bideak (erabilera %)

Haur Literaturako informazio bideak erabiltzen dituztenen artean, orain zeintzuk erabiltzen dituzten galdetzerakoan, guraso batzuk erantzun bat baino gehiago eman dute. Hemen ere, aldaketa batzuk nabarmentzen dira. Bukaerako ebaluazioaren emaitzak adierazten dute, orain gurasoek “egunkarietako eranskinak”, %**11k** erabiltzen dituztela, ( %**4a gutxiago**). “Liburu denden nobedadeak”, orain %**23ak** erabiltzen du, (%**3a gutxiago**). “Beste bideak” erabiltzen dituztenak (eskola, beste gurasoak, ...), orain %**53a** da, hasierako emaitzarekin konparatuz, %**5a gutxiago** ere.

Aldiz, beste informazio bide batzuk, guraso gehiagok erabiltzen dituzte; orain “liburutegiko gomendioak” %44a erabiltzen ditu, (hasierako emaitzarekin konparatuz, %7a **gehiago**). Beste aldetik, Galtzagorri elkartearen zerrendak eta bere Web orria, orain %13a erabiltzen du, lehen baino %4a **gehiago**.

#### **Ondorioak:**


Aldagai honetan ere, nahiz eta txikia izan, hobekuntza gertatu da. Orokorrean, gurasoek pixkanaka informazio bide espezializatuera gehiago zuzentzen dira HGLri buruzko informazioa eskuratzekoan. Orain, hasieran baino, guraso gehiago zuzentzen dira liburutegietara eta Galtzagorri elkartera. Datu honek adierazten du, *Bularretik Mintzora* egitasmoak sortu duen eragina, bereziki liburutegietan, eta bide onetik ari dela irakurzaletasuna sustatzen.

Dena dela, oraindik, eskolak eta beste gurasoek eragina handia dute informazioa eskuratzekoan.

## 2.5. LIBURUTEGIAREN ERABILERA

Azkenik, atal honetan, bukaerako galdekizunean gurasoei galdetu zaie zenbateraino aldatu diren haur liburutegiaren erabileraren ohiturak.

### 2.5.1. LIBURUTEGIERATA JOATEAREN MAIZTASUNA



14. Grafika: Liburutegietara joatearen maiztasuna (%)

Liburutegietara joatearen maiztasunaz galdetzerakoan, bukaerako ebaluazioaren emaitzen aldaketak oso nabarmenak izan dira. Orain “inoiz” joaten ez direnak, **%7ak** dira bakarrik. Hasierako ebaluaketan, **%50a** zen. Beraz, **%43a gutxiago** dira liburutegietara joaten ez direnak.

Orain, noiz edo noiz joaten diren gurasoak, **%93a** dira. Horien artean, maiztasun desberdinekin agertzen dira liburutegietara. Gurasoen laurdenak (**%26ak**), “urtean hiruzpalau aldiz” joaten dira. Hasierako emaitzarekin konparatuz, **%17a gehiago**. “Hilean behin” joaten direnak, beste laurdena da (**%26**), **%15a gehiago**. “Hamabostean behin”, orain, **%19ak** joaten dira, (**+%5**).


Aldiz, maiztasun handiagoarekin joaten diren gurasoak, nahiz eta neurri txikiagoan izan, emaitzak hobegotu dira baita ere. “Astean behin” edo “hiruzpalau aldiz” joaten direnak orain, **%23a** da. Hasierako ebaluaketarekin konparatuz, **%7a gehiago**.

### Ondorioak:

Irakurtzeko zaletasuna suspertzerakoan, ezaugarri garrantzitsuenetariko bat liburutegiaren erabilpena da. Zentzu honetan, bukaerako ebaluazioaren emaitzak azaltzen duten bezala, hasierako ebaluaketarekin konparatuz, hobekuntza oso nabaria gertatu da. Ebaluatua izan diren gurasoak liburutegietara joateren ohitura sortu da (hasieran baino ia **%50a gehiago**). Joatearen maiztasunari dagokionez, oraindik, ohitura berri honekin hasi berriak diren guraso eta haurrak, txikia den arren (hilean behin edo urtean hiruzpalau aldiz), areagotzearen joera nabarmentzen da.

Argi dago bada, Bularretik Mintzora egitasmoak liburutegietara erakarri dituela guraso eta haurrak.

### 2.5.2. MAILEGUAREN ERABILPENA ETA MAILEGU MOTA



15. Grafika: Maileguaren erabilera eta mailegu mota (%)

Liburutegietara joaten diren artean, mailegu zerbitzua erabiltzen dituzten galdetzerakoan, hasierako ebaluaketan bezala, orain ere, ia guztiek (**%97ak**) baietz diote.

Zer baliabide mota mailegatzuten dituzten galdetzerakoan, askok mota bat baino gehiago aukeratzen dituzte. Bukaerako ebaluaketan gehien mailegatzuten duten baliabidea “ipaina” da. Orain, **%87ak** mailegatzuten du. Hasierako emaitzekin konparatuz, **%41a gehiago**. Ondoren, “bideoak, DVDak, joko interaktiboak”, orain **%52ak** (+**%15**). “Beste baliabideak” (komikiak, musika, gurasoentzat liburuak, ...), orain **%18ak** mailegatzuten ditu (+**%17ak**). Azkenik, “haur poesia” mailegatzuten du **%2ak**. Hasierakoekin konparatuz ia berdina (+**%1a**).



### Ondorioak:

Haur Literaturako baliabideen mailegu motari dagokionez, hobekuntza txiki batzuk gertatu dira. Alde batetik, *ipuinak* nabarmenki gehiago mailegatzten dira hasierako emaitzekin konparatuz. Datu hau irakurzaletasuna suspertzerakoan, adierazle garrantzitsu bat da. Zentzu honetan, bide ona hartu da.

Hobekuntza honen arrazoietakoa bat, *Bularretik Mintzora* egitasmoaren ekintza zehatz baten eragin zuzena dela esan daiteke, *Motxila Txiki*en eragina hain zuzen ere. Ekintza honek eskola, etxea eta liburutegia lotzen ditu, eta familia bakoitza urtean hiruzpalau aldiz pasatzen da liburutegitik liburu bat maileguan eramateko. Honek mailegu eta liburutegiko bazkideen kopuruak ugartu egin ditu noski.


Aldiz, haur poesiaren mailegu kopuruak ez dira gehiagotu. Tamalez, oraindik haur literaturako baliabide mota honek ez du izan behar duen erantzunik guraso eta haurrengandik. Helburu hori lortzeko estrategia berri batzuk abian jarri behar direla argi dago.

Erantzun honek zenbait hausnarketa eragin ditu egitasmoaren baitan. Alde batetik, haur poesiaren ekoizpen editoriala txikia da beste genero batzuen ondoan, eta horrek ez du mailegua errazten. Beste alde batetik, poesia beste euskarri batzuetan barreiatua dago (Soinu CD-ak, genero desberdinak nahasten dituzten liburuak...) eta honek nahasmena sor dezake irakurlearengan, ezin baitu beti garbi identifikatu. Azkenik, galdekizuneko galderaren formulazioa ere ez da garbiegia, *Bularretik Mintzora*ren filosofian poesiaren adiera oso zabala baita: hitz jolasak, esku jolasak, igarkizunak, elkarriketa errimatuak...

Teknologia berriarekin zerikusirik duten baliabideen mailegua (DVDak, joko interaktiboak, ...), nahiz eta ipuinen maileguarekin konparatuz askoz ere txikiagoa izan, ugartu egin da. Datu horiek adierazten duten bezala, ezin da ukatu baliabide desberdinez hitz egiterakoan, teknologiak haur eta gurasoengan duen erakarpina. Dena dela, oraingoz, ipuinak lehentasuna du teknologiaren aurretik, baina baliabide teknologikoak haur poesiaren aurretik doaz hala ere.

## 2.6. BULARRETIK MINTZORA MATERIALEN BALORAZIOA

Azkenik, bukaerako ebaluazioan, gurasoei galdetu zaie, Bularretik Mintzorako materialen balorazioa emateko. Hona hemen lortu diren emaitzak:



16. Grafika: Bularretik Mintzorako materialen balorazioa (%)

*Bularretik Mintzora* egitasmoak sortu eta erabili dituen materialen balorazioa eskatzerakoan, gehienek “onak” direla diote. Zehazki, “**gomendatutako liburu-ipuina**” %73ak, “onak” direla diote. %11ak, “oso onak” eta %7ak, “nahiko onak”. “**Bularretik Mintzora CDa**”, %66ak, “onak”, %8ak, “oso onak” eta %10ak, “nahiko onak”. Eta “**Foiletoak, gomendioak, esku orriak, ...**”, onak direla, %66ak dio; %11ak, “oso onak” eta %8ak, „nahiko onak“. “Txarrak” direla uste dutenak, %1a da.

### Ondorioak:

Guraso gehienek ondo baloratzen dituzte *Bularretik Mintzora* egitasmoak sortu duen Haur Literaturako baliabideak eta materialak. Materiala erakargarria izatea, irakurzaletasuna sustatzerakoan, ezinbesteko baldintza da, eta zentzu honetan helburua betetzen ari da. Beste materialekin konparatuz, gomendatu diren liburu-ipuina balorazio zertxobait hobea lortzen dute.

### **3. BULARRETIK MINTZORA EGITASMOAREN GARAPENA ZENBAKITAN**


---

### 3. BULARRETIK MINTZORA EGITASMOAREN GARAPENA ZENBAKITAN

Atal honetan zehazten da *Bularretik Mintzora* egitasmoa abian jarri zenetik, Euskal Autonomi Erkidegoan sortu duen hedapen kuantitatiboa, lau parametro kontuan hartuz: herriak, eskolak, ikastetxeak eta haurrak.




17. Grafika: BM egitasmoan parte hartu duen herrien kopurua



18. Grafika: BM egitasmoan parte hartu duten irakasleen kopurua



19. Grafika: BM egitasmoan parte hartu duen ikastetxeen kopurua



20. Grafika: BM egitasmoan parte hartu duten haurren kopurua

### Ondorioak:

Grafiketan nabarmentzen den bezala, Bularretik Mintzora abian jarri zenetik, egitasmoaren “zenbakiak”, izugarri ugartu dira.

Herriei dagokionez, 2008-2009 ikasturtean, **5** izan ziren egitasmoarekin hasi zirenak. Gaur egun, lau urte geroago, **12 herri** dira. Beraz, **%140a** gehiago.

Irakasleei dagokionez, hasieran **116** ziren. Orain, **300 irakasle** dira; **%160a** gehiago.

Egitasmoan parte hartzen duten ikastetxeen kopurua ere asko ugartu da. Lehenengo ikasturtean **16** ziren. Gaur egun, **41 ikastetxe** dira, egitasmoa aurrera eramaten dutenak. Beraz **%156an ugartu da** ikastetxeen kopurua.

Azkenik, haurren kopuruari dagokionez, 2008-2009 ikasturtean, **2.200 haurrak** izan ziren egitasmoaren ekimenak jaso zituztenak. Gaur egun, guztira **5.000 haur inguru** dira..Beraz, **%130a** gehiago.

Ikusten denez, 2008aren urtean abian jarri zenetik orain arte, Bularretik Mintzora egitasmoaren hedapen kuantitatiboa, oso handia izan da. Zehazki, lau parametro horien batezbesteko gehikuntza **%146koa** izan da, hau da, lau urtetan egitasmoaren eragin kuantitatibo orokorra, EAEko herri, eskola, irakasle eta haurren, **2,50tik biderkatu egin da**. Datu honek erakusten du, gero eta haur gehiagorengan irakurzaletasuna sustatzen ari garela.

## **4. ONDORIOAK**

---

## 4. ONDORIOAK

Aztertuak izan diren herrietan (Amurrio, Ermua, Iurreta, Oñati, Tolosa eta Markina), *Bularretik Mintzora* egitasmoaren ekimenen eragin kuantitatibo eta kualitatibo, arloz-arloz aztertu ondoren, ondorio orokor hauek atera ditzazkegu:

1. Bukaerako ebaluazio honetan kontutan izan diren irakurzaletasuna definitzen duten **16 adierazleen** aldakortasunari dagokionez, gehienetan positiboa izan da. Zehazki, aldagaien aldakortasuna honako hau izan da:

**Hobekuntza nabarmena** izan duten aldagaiak hauek izan dira:

- Irakurketarekiko jarrerak (zergatiak)
- Ipuina kontatzearen unea
- Kontatzeko estrategiak ugaritu egin dira
- Kontatzeko inguruko baldintzak kontrolatzea
- HGLko ezagutza maila orokorra
- HGLko baliabideen zein adinetako diren informazioa
- HGLko informazio bideen erabilera
- HGLko informazio bide espezializatuak erabiltzea
- Maileguaren erabilpena eta baliabideen mota

**Asko hobea** diren aldagaiak, beste hauek dira:

- Haur kantak abestu
- Haurren arretaren iraupena
- Liburutegietara joatearen maiztasuna

**Hobekuntzarik izan ez** duten aldagaiak hauek dira:

- Ipuina kontatzearen maiztasuna
- Ipuina nork kontatzen duen
- Haur Literaturako baliabideen erosketa
- Ahozkoitasunaren erabilera (kontatzeko estrategia bezala)

Beraz, 16 aldagaietatik, **12tan** hobekuntza (nabaria edo ugaria) izan da. Orokorrean, esan daiteke bada, irakurzaletasuna finkatzen ari dela ebaluatuak izan diren herri horietako familietan.

2. Aldiz, emaitza horien arabera, etorkizunean egitasmoaren eraginkortasuna hobegotzeko, kontutan hartu beharko liratekeen helburuak hauek dira:

- HGLko jardueretan hurrekin, gizonaren partehartzea areagotzea
- HGLko baliabideen erosketa-adierazleak ugaritzea
- HGLko jardueretan eta baliabideen erabileran, ahozkoatasuna, indartzea

3. *Bularretik Mintzora* egitasmoak sortu dituen baliabideei dagokionez (Zerrenda eta maletetan gomendatutako ipuinak-liburuak, CDak, foiletoak, esku orriak...), gurasoen asetze maila ona izan denez, bide horretatik jarraitzea aurreikusten da.

Aurreko atalean aipatu den bezala, *Bularretik Mintzora* lortzen ari den hedapen maila kontutan harturik, eta egitasmoaren ekimenen kalitatea eta eraginkortasuna bermatzeko, erakunde publikoen babesarekin jarraitzea behar beharrezkoa da. Alde batetik, orain arte lortutako hobekuntzak mantentzeko, eta bestetik, egitasmoaren helburuak ahalik eta haur gehienengana iristeko.

GALTZAGORRI ELKARTEA

2011ko abendua